

# ek!

**eta kitto!**  
euskara elkarte

2024ko urtarrilak 12 - 1296 zenbakia



## TXAKURKROSA LAGUN ARTEKO GIROA

**Merkealdia**

**2mó 189€**

lehen 229€

erreflexuen aurkako  
betaurreko **progresiboak**

Kontuituta aplikari kanpoharen eraberritak.



**MULTIÓPTICAS**

943 20 05 22  
Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua  
WhatsApp bidez

[www.multioplicas.com](http://www.multioplicas.com)





**FISIOTERAPIA**

**ZENTRUA**

**Ane Mendia**

970 kol. zkoa.



**INDIBA TERAPIAK**  
**ARTIKULAZIO TENPORO-**  
**MANDIBULARREKO ARAZOAK**  
**TRATAMENDU PERTSONALIZATUAK**  
**K-STRETCH KLASEAK BAKARKA**  
**HIPOPRESIBOAK ETA FISIOTERAPIA**  
**OROKORREAN**  
**ERGONOMIA HOBETZEKO KLASE**  
**PERTSONALIZATUAK**



**Arragueta, 20**

**943 530642**

**ane\_mendia@hotmail.com**

# zarelakopara

Izen-abizenak \_\_\_\_\_

Helbidea \_\_\_\_\_

Tfnoa / emaila \_\_\_\_\_

NAN \_\_\_\_\_

Jaiotze data \_\_\_\_\_

K/K zenbakia \_\_\_\_\_

**eta kitto!**  
eusgara elkarteak

**Urkizu 11**

943 20 09 18 - 943 20 67 76

elkartea@etakitto.eus

## URTEKO KUOTAK

NORK	EKARPENA	ERRENTAN ITZULKETA	BENETAKO KOSTUA
Umeak (16 urtetik beherakoak)	5 €	1,5 €	3,5 €
Ikasle, langabetu, jubilatutak	20 €	6 €	14 €
Langileak	50 €	15 €	35 €
Beste ekarpen batzuk	160 €	45 €	115 €

# Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Severo Ochoa beka jaso ondoren, Maialen Orte astrofisikari eibartarrak Kanariar Uharteetan dihardu nebulosa ionizatuen inguruan doktoretza egiten.

etakitto.eus



#### ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarte

#### HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

#### TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

#### ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

#### ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

#### ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

#### ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

#### KOORDINATZAILEA

Ana Aizpurua

#### ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

#### DISEINUA

Maku Oruezabal

#### MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

#### HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

#### PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

#### TELEFONOA

943 20 67 76

#### AZALEKO ARGAZKIA

Andoni Mayo

#### BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

#### TIRADA

7.800 ale

#### INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

#### COPYRIGHT-A

...eta kitto!

#### LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta  
Gipuzkoako Foru Aldundiak  
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

## Eskutitzak



## Hortik esanak



## El Gran Paseo

Hona hemen bi adibide konparagarri. Bietan Next Generation maileguak erabiliko dira herritarren mugikortasun iraunkorra bultzatzeko:

- Iruñea-Zizur Txikia

2 kilometroko bidegorria / 1,6 milioi euro

Kilometroko 800.000 euro

- Eibar. Gran Paseo

Kilometro bateko bidegorria / 16 milioi euro

Kilometroko 16.000.000 euro

**Iturria: Gara egunkaria. 2024/01/04**

Bakoitzak bere ondorioak atera ditzala, baina zenbakiak dena esaten dutela uste dugu. Hala ere, Auzo Elkarteak orain ulertu dugu zergatik Eibarko paseoaren bultzatzaileek “El Gran Paseo” izena jarri dioten.

**No al paseo que nos entierra-Ekialdea Bai Auzo Elkarteak**

Familiak gero eta txikiagoak dira. 2024an jaiotako neska batek ia ez du anai-arrebarik izango, ezta lehengusu-lehengusirik. Aldiz, bere aitona-amon guztiak ezagutuko ditu, eta birraitona-amon gehienak ere bai. Gaur egungo joerei eutsiz, berak ere seme-alaba bakarra izango du, edo hori ere ez. 35 urterekin bere ahaidetasun-sareak inoizko laburrena izango da. Eta hiltzen denean, oso nagusi hori bai, seguruenik bakarrik egongo da. Orduan ere, familia izan beharko da babesgune, baina erakunde publikoek ere neurriak hartu beharko dituzte laguntza-funtzioak sortzeko. XX. mendearan erdialdean, 65 urteko emakume batek 41 parrante izango zituen, munduko bataz-bestekoan. 150 urte geroago, 2095ean, adin bereko batek familiako 25 besterik ez du izango. Euskal Autonomi Elkartera etortria, 1950ean 65 urteko emakume batek 20 bat senide izango bazituen, mende honen amaieran ez du 13tik gora izango.

**PNAS zientzia aldizkaria**

Esaten dute baleak eta izurdeak hemisferio bakarrekoak direla, burmuinaren erdiarekin lo egiten dutela, eta beste erdiarekin erne doazela. Gizakioi dohain hori falta zaigu, beharbada.

**PATXI ZUBIZARRETA, idazlea**

Orain aurkitu duten 520 urteko Groenlandiako marrazoak da orain arte ezagututako bizitarik luzeeneko animalia. Espezie hori 150 urterekin iristen da bere heldutasun sexualera; ur hotzetan bizitzeak horraino atzeratzen du euren metabolismoa. Oso lasai bizi dira bi kilometroko sakontasunean eta 0 azpitik 7 graduko tenperaturan. Askorik ez dute ikusten, baina horrelako iluntasunean hori ere ez dute behar. Zazpi metro neurtu dezakete eta tonelada eta erdiko pisua hartzeko gauza dira.

**MARINE BIOLOGY zientzia aldizkaria**

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**OSTE** → Kontrakotasunari indarra emateko. “Ze karu eta ze oste! Esaixok, juan deilla kakatar!”

**OSTEAN** → Gainerakoan. “Alde batera laga ezkeron nagia zana, jokolarixa eta gonazalia, ostian ona eta maittia zan nere senarra”.

Bestela. “Gogor egin bihar da biharra, ostian, ez dago aurrera egitterik”.



Idurre Iriondo

## Farmaziak

<b>BARIXAKUA 12</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>ZAPATUA 13</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>DOMEKA 14</b>
<b>EGUNEZ   Castaño</b> (J. Etxebarria, 7)
<b>ASTELEHENA 15</b>
<b>EGUNEZ   Lekunberri</b> (Isasi, 31)
<b>MARTITZENA 16</b>
<b>EGUNEZ   Zulueta</b> (San Agustín, 5)
<b>EGUAZTENA 17</b>
<b>EGUNEZ   Elortza</b> (J. Gisasola, 18)
<b>EGUENA 18</b>
<b>EGUNEZ   Azkue</b> (T. Etxebarria, 4)
<b>BARIXAKUA 19</b>
<b>EGUNEZ   Mendinueta</b> (Urkizu, 6)

**GAUEZ BETI**, 2024an,  
Lekunberri (Isasi, 31)

## Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekuia	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

## Hildakoak

- **Eduardo Martinez Egiguren**. 67 urte. 2023-12-26.
- **Begoña Arieta-Orbe Ibararrauna**. 92 urte. 2023-12-27.
- **Eugenio Argarate Gaminde**. 82 urte. 2023-12-27.
- **Jose Luis Moya Hortelano**. 67 urte. 2023-12-28.
- **Jacinta Puras San Millan**. 89 urte. 2023-12-30.
- **Arrate Vitoria Aranzabal**. 95 urte. 2023-12-30.
- **Evangelina Escalada Bocos**. 90 urte. 2023-12-31.
- **Ana Garcia Garcia-Anton**. 60 urte. 2023-12-31.
- **Maria Paz Forcen Morena**. 91 urte. 2024-01-02.
- **Ana Maria Zamakola Besoitagoena**. 95 urte. 2024-01-02.
- **Jose Antonio Larrea Aparicio**. 83 urte. 2024-01-02.
- **Cristina Rubio Saez**. 73 urte. 2024-01-04.
- **Arrate Garate Egia**. 81 urte. 2024-01-04.
- **Javier Victoriano Gomez**. 70 urte. 2024-01-08.

## Jaiotakoak

- **Aisa Ali**. 2023-12-22.
- **Mohamed El Boussaidi**. 2023-12-22.
- **Laia eta Maren Garcia Vicuña**. 2023-12-24.
- **Muhammad Saao Quaisar**. 2023-12-30.



## Make In! ekintzailtza programarako izen-ematea zabaldu du Debegesak


Debegesa Garapen Agentziak, Debarreneko ekintzailtzari laguntzeko beste eragile batzuekin batera, MAKE IN! programaren 3. edizioa jarri du martxan. Debegesak sustatutako programa industriari lotutako Startups edo enpresa-ekimenei zuzenduta dago, baldin eta gutxieneko produktu bideragarria edo eraikitzen ari dena badute. Gainera, programara aurkezten diren ekimenek osagai teknologikoak edo negozio-eredu berritzaileak izan behar dituzte, esparru honetara lotuta-

koak: fabrikazio gehigarria, ikusmen artifiziala, RV/RA, robotika, IA, Big Data eta IoT. Era berean, proiektuek industriari lotutako ekonomia zirkularrarekin eta enegiarekin lotuta egon beharko dute. Nabarmendu dutenez, egitasmoak hainbat abantaila eskaintzen dizkie parte-hartzaileei.

Industria-ekintzailtza programa honi buruz gehiago jakin nahi duenak, Debegesaren atari digitalean aurkituko du informazio guztia, eta bertan eman ahal izango du izena (martxoaren 18ra arte).

## Martxoaren 20an, 10:30 aldera, ailegatuko da 23. Korrika Eibarrera Ermutik

Martxoaren 14tik 24ra, Irundik Baionara egingo da Korrikaren 23. edizioa, eta ibilbidearen berri eman dute egitasmoaren app-an (Android edo Ios). Horren arabera, martxoaren 20an, 10:30 inguruan, ailegatuko da Korrika Eibarrera, Ermutik. Ipuruatik pasa eta Juan Gisasola kaletik jaitsi ondoren, Untzagara iritsiko da eta, Julian Etxebarria kalea hartu ondoren, Toribio Etxebarria kaletik berriz itzuliko da Untzagara, gero Soraluzeako bidea hartzeko. Aurten gure herriak badu zer esanik Korrikan, abestia Maite Arroitauregi 'Mursego' eibartarrak sortu duelako.



## Errege Magoek Eibarrera egindako bisitaren bideoa gure YouTube kanalean ikusgai

Urtero bezala, Meltxor, Gaspar eta Baltasar erregeak urtarrilaren 5ean ailegatu ziren Eibarrera. Errege Egunaren bezperan euria eta hotza egin zuen eta, ondorioz, aurten ez da Erregeen kabalgararik egin. Dena dela, arratsaldean Nele Dantza Eskola, Eibarko Balleta, Kaxa, Koa eta Ipurua Gimnasia Erritmiko taldeen erakustaldian egon ziren Erregeak, Ipurua kirol-

degian. Ondoren, umeek udaletxeko patioan erregeekin argazkiak egin eta azken orduan idatzitako gutunak eskura eman zizkieten. Arkupeetan, berriz, kabalgatara-ko ekarri zituzten txotxongiloak eta Eibarko Musika Bandakoak ibili ziren. Ekitaldiaren inguruko irudiekin bideoa egin eta gure YouTube kanalera igo dugu, nahi duzuenek ikusteko.



## Senegalera bidaltzeko betaurrekoak jasotzen ari dira Untzaga jubiletxean

Mikel Porto eibartarrak, Gipuzkoako jubilatutako etxeen eta lurraldeko udalen laguntzarekin, erabilitako betaurrekoak biltzeko kanpaina jarri du abian, ondoren Senegalera bidaltzeko. Azaldutakoaren arabera, “erabilitako betaurrekoak balio ez dutela iruditu arren, Senegalgo pertsona askorentzat luxuzko artikulua dira”. Hori dela-eta, era guztietako antiojoak hartzen ari dira: eguzkitako betaurrekoak, graduatutakoak, armazoiak baino ez... Bildutako guztia Senegalera bidaliko dute, Baobad elkartearen bidez. Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteak 74 egoitza eskaini ditu betaurrekoak jasotzeko, tartean Untzaga gizarte etxea. Beraz, lagundu nahi duenak bertara eraman ditzake erabiltzen ez dituen betaurrekoak. Urtarrilaren amaierara arte jasoko dituzte.

## Pentsio duinen aldeko borrokak sei urte beteko dituela ospatuko dute astelehenean

Pentsiodunek borrokari ekin ziotela sei urte beteko dira astelehenean, eta eguerdiko elkarretaratzera joateko deialdi berezia egin nahi izan dute Eibarko Pentsiodunen Plataformakoek: “Euskal Herriko 80 herri baino gehiagotan, baita Estatuko hiri askotan ere, kalera itzuliko gara lortutakoa aldarrikatzeko eta lortzeko falta zaiguna eskatzen jarraitzeko. Sei urte hauetan gauza asko gertatu dira, agian garrantzitsuenetako bat izan zen %0,25eko igoera gainditzea lortu genuela, lau urtez inposatu zitzaizgun KPIaren igoeraren konpentsazio gisa. Beste puntu positibo bat, zalantzarik gabe, iraunkortasun-faktore ospetsua ezabatzea izan zen.

Azpitarratzekoa da 2021ean pentsioen erreforma onartu zela, KPI errearen igoera legez errespetatu zelako. Hala, iaz kotizaziopeko pentsioek %8.50eko eguneratzea izan zuten, eta aurten %3,80koa, pentsio prekarioenen hobekuntza batzuek gain, salbuespeneko egoera batzuetan %14,10eraino”. Mobilizazioei esker emaitzak izaten ari direla argi daukate, baina nabarmendu dute aurrera begiratzeko jarraitu behar dutela, “Euskal Autonomia Erkidegoan ia 200.000 pentsiodun daude-eta. Astelehenean, 12:00etan, Untzagan ikusiko dugu elkar, eta 2024rako pilak kargatzeko, hamarretako interesgarri bat dastatuko dugu”.

**Izadi**  
LORADENDA  
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK  
EZKONTZETARAKO LORAK  
ZENTROAK  
ERRAMIAK  
*Enkarguak etxera*

**San Andres Gozologia**

- tartak
- enkarguak etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73



## Erretzeari laga nahi dutenentzat doako terapia-saioak antolatu dituzte

Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkarteak tabakoa erretzeari lagatzeko terapia-saioak antolatu ditu. Zerbitzua doakoa da eta AECC Gipuzkoak hainbat eskualdetan dituen sei egoitzetan eskaintzen da. Saioak tabakismoan aditua den psikologo batek zuzenduko ditu beti, eta Eibarren astean behin, eguenetan izango dira, 11:00etatik 12:00etara, elkarteak Ardantza kalean duen egoitzan. Horrez gain, terapia online egiteko auke-

ra ere ematen dute. Guztira zortzi saio dira, eta egun eta ordutegi hauek daude aukeran: astelehenero, 15:00etatik 16:30era; martitzeno, 11:30etik 13:00era; eta eguazteno, 17:00etatik 18:30era. Batean zein bestean izena emateko azken eguna urtarrilaren 17a da. Izena emateko edo informazio gehiago eskatzeko Minbiziaren Aurka Gipuzkoan elkartearen telefono zenbakira (943 45 77 22) deitu daiteke.

## Zarata murrizteko pantailak ipiniko dituzte Ardantza-Amaña arteko tren geltokietan

Trenaren zarata murrizteko, Eusko Trenbide Sareak pantaila fonoxurgatzaileak eta hormigoizko babesak jarriko ditu Ardantza eta Amañako geltokien artean, horrela Udalaren eskaerari erantzunez. Lanak urtarrilean hasi eta martxoan amaituko dira, eta aurrekontua 549.000 eurokoa izango da. Alkatetzatik aditzera eman dutenez, “izan ere, trenek zarata handia ateratzen dute Ardantza,

udaletxearen atzealdea, San Andres pasealekua eta Egogain arteko tartean eta, alkatetzatik hala eskatuta, trena herritik igarotzean eragiten duen inpaktu akustikoari buruzko azterlan bat egiteko eskatu zuten Eusko Jaurlaritzak, eremua Torrekua kaleraino zabaltzea proposatuz (Eibarko Ospitaleraino), guztira kilometro bat inguruko ibilbidean”. Lanek ez diote trenzerbitzuari eragingo.

## Txirrindulari Elkartearen urteko batzarra eta zikloturista-lizentziak

Bihar egingo du urteko batzarra Eibarko Txirrindulari Elkartek, Portalean, 11:00etan lehen deialdian eta 11:30ean bigarrenean. Bestalde, elkarteak jakinarazi duenez, 2024rako zikloturista-lizentziak tramitatzen hasi daiteke. Nahi izanez gero, clubciclistaebarrres@gmail.com helbide elektronikora idatzi daiteke edo, bestela, zuzenean elkartearen bulegora joan, martxoaren 13ra arte, eguaztenetan, 19:00etatik 20:00etara. Informazio gehiagorako, 943 20 34 80 telefono zenbakira deitu.



## Balio historikoa duten eraikinen kartografiak 3Dn

Udaleko Hirigintza eta Ego Ibarra batzordeak elkarrekin ari dira lanean herriko ondasun higiezinazaindu eta hedatu nahian eta, kasu askotan ez dagoenez ondare-balioagatik katalogatuta dauden edo kataloga daitezkeen eraikinen kartografia orokor eguneraturik, eraikinak eskaneatzen ari dira. Abenduan, Cuadrante enpresak hiru eraikin hauek eskaneatu zituen: Sagartegieta jauregia; Txontako Industrias Rocandio SL eta Untzueta jauregia. Behin betiko dokumentuak presatatu ondoren, birtualki ikusi ahal izango dira.





## Auzokoak elkartearen bazkaria berreskuratu dute 40. edizioan

Auzokoak elkarteak Gureak-eko langileei eskaintzen dien Gabonetako bazkaria berreskuratu dute aurtun, pandemiak eragin zuen etenaldiaren ondoren. Bihar izango da hitzordua, eta ekitaldiaren 40. edizioa beteko da. Auzokoak elkarteak osatzen duten elkarte gastronomikoen berriz ere ekitaldia antolatuko dute, eta 100 lagun baino gehiagori bazkaltzen emango diete. Babesleen la-

guntzari esker, opariak eta ilusioa ere banatuko dizkiete gonbidatuei. Kolaboratzaileen artean, EITB, Tekniker eta Kaiku nabarmentzen dira, baina erakunde publikoak ere badaude, hala nola Gipuzkoako Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzak eta Eibarko Udala. Eta, horiekin batera, beste babesle asko daude: Eroski supermerkatua, Urkotronik, Kutxabank, Laboral Kutxa, Caja Rural, Abanca,

Coloniales Anselmo Gonzalez, Soleira Eibarresa, Exclusivas Oroz, EAJ-PNV, Dantzaneus, ...etakitto! Euskara Elkarteak, Ustekabe txaranga, Eibar Kirol Elkarteak eta DV.

Gaur egun ekitaldia antolatzen aritzen den Josu Mendicuteren berbetan, "janaria eta opariak elkarte gastronomikoetako boluntarioek prestatzen dituzte, eta Alberto Untzetabarrenek sustatu zuen lan hori, 2007. urtera arte. Ez dakit nola eskertu Albertok hainbeste urtetan egindako lana hau guztia martxan jartzeko, baina merezi du errekonozimendua".

**FUNEUSKADI**  
Funeraria mugica

TANATORIO EIBAR

**FUNERARIA MUGICA**  
Funeraria mugica

TANATORIO FUNERARIA MUGICA

**24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951**  
[www.funeuskadi.com](http://www.funeuskadi.com)

<p><b>Eibar:</b> Otaola, 27</p> <p><b>Eibarko bulegoa:</b> Bidebarrieta, 20</p>	<p><b>Elgoibar:</b> Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Otasoko hilerriaren ondoan)</p> <p><b>Ermuako bulegoa:</b> Marqués de Valdeupina, 16</p>
---	---

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

### Javier Victoriano Gómez

2024/01/08

**ESKERRIK ASKO**  
une samingarri hauetan  
jasotako maitasun  
eta laguntzarengatik.

- BERE FAMILIA -

# “Nebulosen argazkiak asko gustatzen zaizkit, txikitatik, baina baita haien konposizioa ere”

MAIALEN ORTE • Astrofisikaria



Osabarengandik jaso zuen izarretara begira jartzeko afizioa eta, orain, horretara bideratu du bere bizimodua. Zerura begira, erraza da amestea, eta Maialen Ortek ametsa dihardu bizitzen Kanariar Uharteetan. Izan ere, Severo Ochoa beka jaso ondoren, bertan dihardu doktoretza egiten.

**N**ebulosa ionizatuen inguruko doktoretza egiten dihardu Maialen Ortek Kanarietako Astrofisika Institutuan. Lau urteko lana du aurretik eta gogo handiarekin ekin dio erronkari. Gabonetan bere jaioterrian indarrak batu ondoren, Tenerifera joan da orain zerura begira jartzeko.

## Zer izan da zuretzat Severo Ochoa beka jasotzea?

Lehenik eta behin, hilabete askotako lanaren saria izan da. Azkenean, horrelako beketan demaseko lehia egoten da, nazioarteko partaidetza dago eta, borrokatu dudak arren, badakit zortea izan dudala. Izan ere, nahi nuen tokian eta astrofisika atalean arituko naiz ikertzen. Kanarietan geratu nahi izan arren, kanpora joan behar izan diren lagunak ditut; edo eurek nahi zutena ez den beste atal batzuetan ikertzen ari direnak, aukerarik izan ez dutelako. Hasteko irrikitan nago.

## Zergatik egin nahi zenuen ikerketa Kanariar Uharteetan?

Bi arrazoiengatik. Batetik, ikerketa zentroak mundu mailako ospea duelako. Kanarietako Astrofisika Institutua mundu osoan da ezaguna, bai ikertzaileengatik bai bertan egiten diren ikerketengatik. Bertako

behatokia izugarria da. Nazioarteko ikerketa zentroek teleskopioak dituzte han eta asko lagundu du behatokiaren handitzean. Gainera, laneko giroa ere zoragarria da. Bestetik, ikerketa Tenerifengatik aukera izateagatik. Kanarietara joan aurretik Madrilen egon nintzen urtebetez, eta Madrilek eta Tenerifek ez dute zerikusirik. Tenerifeko bizitza zoragarria iruditu zait eta jendeak bikain hartu nau. Hiru urtez egon naiz han, baina hilabete batzuk bakarrik egon ondoren banekien bertan urteak pasa nahi nituela.

## Nebulosa ionizatuen inguruan diharduzu ikerketa egiten, baina zer dira zehazki?

Seguruenik gehienok argazkietan nebulosak kolorez beteriko hodeiak bezala ikusi ditugu. Berez, nebulosak gazez eta plasmaz osaturiko hodeiak dira. Hodei hauetan izarrek sortzen dira eta izarren ingurua ionizatu egiten da. Jasotzen dugun argiak uhin-luzeeira desberdinak ditu, espektro elektromagnetikoaren atal ezberdinei dagokie eta, orduan, kolore ezberdinak ikusten ditugu. Kolore hauek, ostera, ezin ditugu begiekin ikusten ditugun koloreekin konparatu behar. Nebulosen argazkiak tresna eta teleskopio izugarriekin egiten dira, eta guk begiekin bakarrik zerura begiratuz gero, ez dugu kolorerik ikusten, argi zuria besterik ez.



Maialen Ortek Gabonak Eibarren pasa ditu Kanariar Uharteetan ikerketa hasi aurretik.

Nebulosen argazkiak asko gustatzen zaizkit, txikitatik, baina nebulosak ikertzean haien konposizioa eta bestelako gauzak ere asko gustatu zitzaizkidan eta arlo horretan aritzea erabaki nuen.

#### **Zure ikerketa zertan datza zehazki?**

Ikerketa, berez, orain hasiko dut, baina masterreko azken lanarekin hasi nintzen gaian sakontzen. Ikerketan elementu batean zentratu nintzen, baina azken neurrian nebulosen konposaketa aztertu nuen. Orain nebulosen propietateak ikertuko ditut, baina nebulosen inguruan gehien ikertzen dena elementuen konposaketa izaten da. Kloroa, oxigenoa, hidrogenoa, nitrogenoa... Horretan arituko naiz, baina astroargazkilaritza ere asko gustatzen zait, hori da nire zaltetasuna eta, argazkiak erakusteko aukerarik badut, aprobetxatu egingo dut.

#### **Nebulosen argazkiak txikitatik gustatzen zitzaizkizula esan duzu, baina zergatik erabaki zenuen horren inguruan ikertzea?**

Masterrean ikasgai asko izan genituen eta nebulosen ikasgai oso gustora ibili nintzen. Irakasleak izugarri lagundu zidan. Masterreko azken lana erabakitzera-

**“Nebulosen inguruan ez dabilenez jende asko ikertzen, zu izan zaitetzke gaiari oihartzuna eman diezaiokeen ikertzailea. Erronka polita da niretzat”**

koan, gaiaz gain, norekin egingo nuen ondo begiratu nuen, eta irakasle horrekin egitea erabaki nuen. Horrez gain, gai hau aukeratu dut nebulosak ez direlako gehiegi ikertzen. Hau da, ez dute zulo-beltzek izan duten oihartzuna izan, adibidez. Ia ziur nago, doktoretza amaitzean Mexikon edo munduko beste tokiren batean ikerketarekin jarraitzeko aukera izango dudala. Gaiak ate asko ireki ditzake. Izan ere, ez dabilenez jende asko ikertzen, zu izan zaitetzke gaiari oihartzuna eman diezaiokeen ikertzailea. Beraz, niretzat erronka polita da. **Nolako prozesua jarraitu behar duzu ikerketa egiteko? Zenbat urte?**

ELKARRIZKETA  
BIDEOAN

Doktoretzaren iraupena lau urtekoa da berez eta, gero, kontratu ezberdinen bitartez jarraitzeko aukera dago. Lehen pausoa postdoktoretza egitea izaten da, batzuk hiru urtez egiten direnak. Gero, denbora bateko kontratuak bilatu ohi dira. Astrofisikan ezagunenak ‘Ramon y Cajal’ eta ‘Juan de la Cierva’ bekak izaten dira, Espainiako Gobernuarenak. Ondoren, plaza finkoaren bila joatea izaten da ohikoena. Irakasle eta ikertzaile plazak daude eta, nahi duzunaren arabera, bide bat edo bestea hartzen duzu. Normalean ez da erraza izaten, baina aukerak egoten dira. Zortea izan behar duzu nahi duzun tokian plaza lortzeko, baina dena da borrokatzea.

**Askotan aipatu izan da ikerlariak baldintza eskasak dituzuela, zientziaren inguruan inbertsio handirik ez dela egiten... Nola bizi izan duzu hori?**

Neure azalean ez dut hori bizi izan, oraindik ez naizelako ikertzen hasi, baina gertuko lagunek diote jasotzen duten laguntza oso eskasa dela. Gehien entzuten duguna da jendea atzerrira joaten dela aukera hobea bila. Batzuk bueltan datoz eta beste batzuk ez. Azken neurrian, diru gehiago inbertitu behar da. Gaur egun, medikuntzan inbertitzen dela entzuten da gehien, baina zientziaren beste eremu askotan ez hainbeste, eta pena da entzutea norbaitek ikerketa bertan behera laga behar izan duela inbertsio faltagatik. Astrofisikari dagokionez, askotan entzun dut ea horren inguruan ikertzeak nolako erabilerak dituen gure gizartean, eta esango nuke erabilerak asko dituela. Adibidez, medikuntzara joz, ingeniariak makinak egiten dituzte arlo horretarako, eta beste arloetan ba berdin. Nire iritziz gauza guztietan inbertitu beharko litzateke gehiago.

**Beti izan duzu argi zientziaren munduan aritu nahi zenuela?**

Hasieran irakaslea izan nahi nuen, baina karrera hasi nuenean ikusi nuen ez nuela hainbeste pazientziarik (barreak). Orduan, hirugarren mailan lehen hautazko ikasgaia hartu nuen, astrofisika, eta hortik jo nahi nuela ikusi nuen. Aholkularitza gaietan ibili nintzen Madrilan urtebetez, baina argi geratu zitzaidan astrofisikan aritu nahi nuela. Bestetik, masterra egin nuenean etorkizunean izan nitzakeen irteerak azter-



tu nituen eta ikerketaren bidetik jotzea erabaki nuen. Lagunek esaten zidaten aholkularitzaren munduan gelditzeko, diru gehiago ordaintzen zidatelako, baina ez, hasieratik nuen argi ikerketan aritu nahi nuela eta ez naiz gelditu lortu arte.

**Arlo horretan Euskal Herrian aritzeko aukerarik ikusten duzu?**

Astronomiaren edo astrofisikaren inguruan bai. Adibidez, orain dela urtebete jakin nuen Euskal Herriko Unibertsitatean planeta-sistemaren inguruan ikertzen diharduen taldea dagoela, baina, ni nebulosen inguruan ikertzen ibiliko naizenez, gai horren inguruan hemen ezingo nuke ikerketarik egin. EHUn astronomia eta astrofisika ikertzaile asko dago eta San Mamesen zientziaren eta espazioko teknologiaren masterra dago, baina astrofisika masterra oso ezberdina da, sateliteen eta ingeniariaren inguruan diharduelako gehiago. Beraz, astrofisikan aritzeko aukerak badaude, baina nire kasuan zehazki ez.

# BEHERAPENAK E I B A R R E N



#EibarrenBadakagu

**xAre**  
**%50**era arteko beherapenak  
Zuloagatarren, 1 943 536 764  
xareebar.com

**BEITTU** AUDIOPTIKA  
Julian Etxeberria, 13 943 700 230  
**2x1**  
LENTE PROGRESIBO eta MONOFOKALetan  
montura bat erostean

LENTZERIA MERTZERIA  
**TXUKUNA**  
943 621 308  
Eulojlo Garate, 1  
**%20 eta %30-eko BEHERAPENAK**

**el vestidor**  
**%50**era arteko  
**BEHERAPENAK**

T. Etxebarria, 19 943 20 76 51  
cedrymoda@gmail.com  
azken aukerak  
**Cedry**  
beherapenetan

**Kopina** **%50**era  
arteko  
**BEHERAPENAK**  
San Agustin, 3 943 20 41 81

ibarkurutze, 6 943 12 71 06  
info@irritsamoda.com  
**IRRITSA**  
**BEHERAPENAK**

#EibarrenBadakagu

# “Txakurrak agintzen du hemen; berak ez badu nahi, erretiratu eta kitto”

ANDONI MAYO • Txakur krosleria



Domeka goizean Arratek IV. Eibarko Txakurkrosaren edizioa hartuko du. Aurrekoak ere bertan egin izan dira, kenduta Amañan antolatu zutena. Gizakia eta txakurra, bien arteko harremanean du oinarri kirol modalitate horrek. Urteetakoa izaten dena, gainera; gutxi direlako lehiaketarako erositako txakurrak. Gehienetan etxean dutenekin hasten direlako, "naturaz gozatzeko beste modu bat probatzen".

**L**asterketak ere oso zainduta egoten direla diote. Domekakoa albaitari-kontrolarekin hasiko da (08:00-09:30). Lasterketa-bilera egingo dute ondoren, jarraian lasterketei ekiteko: 09:45ean, bikejoring modalitatekoa eta 10:30ean Euskadiko Txakur Kros Ligakoa. Beste albaitari-kontrol bat izango da (11:30-11:45) azken lasterketa -herrikoa deitua- hasi aurretik. 12:00etan jokatuko da hori eta handik ordu erdira sariak banatuko dira.

**Laugarren edizioa izango da domekakoa. Zenbat parte-hartzaile izango dira bertan? Nongoak? Proba txapelketa bateren barrukoa da: Euskadiko Liga edo horrelako zeozterako puntuagarria?**

70 parte-hartzailearen bueltan izango dira txakurkrosaren lehiatzen, aurten beherakada nabarmena igarri dugu-eta. Aurreko edizioetan 100 parte-hartzaile ere izan ditugulako. Bizikleta gainean bost bat izango dira, gutxi gorabehera; lasterketa gogorra izaten da hori. Popularrean orain arte zazpi eman dute izena, baina jendea orokorrean azkeneko momentuan animatzen da. Eta bai, Euskadi mailako liga baten barruan gaude, Euskadiko Txakurkros Ligan (ETL): zazpi proba dira guztira, Bizkaian, Gipuzkoan eta Nafarroan jokatze-koak eta, gutxienez, bostetan parte hartu behar duzu puntuatzeko.

**Non hasiko da lasterketa, non amaitu? Nondik nora jardungo du? Zein toki izan daiteke aproposena lasterketak jarraitzeko?**

Arraten hasi eta amaituko da. 08:00etatik izango gara bertan eta, albaitari kontrola egin ondoren, hasiko da





bizikletako proba, ondoren antxintxiketakoarekin jarraitzeko. Kalamua inguruan lehiatuko dugu, bai bizikletan eta baita korrika ere. Herrikoia, bestalde, Olabeiko kanpan izango da. Guztia ikusteko Arraten izatea gomendatuko nuke. Irteera eta helmuga ikusteko lekurik onena izango da, jakina; eta Kalamuako lautada ere ez da toki txarra izango, Usartzatik igota. Gainera, azken horretan guztiak sakabanatuta pasatuko dira; horrek politagoa egingo du ikuskizuna.

**Eibarren eta inguruan zenbat diharduzue parte hartzen? Inguruak aproposa da entrenatzeko? Nola moldatzen zarete? Nahikoa laguntzarik baduzue?**

Eibarren lau gaude une honetan txakurkroseko lasterketetan parte hartzen. Eibar inguruko mendiak aproposak dira, gehienbat txakurkroserako. Gauzatxo bat zehaztea gustatuko litzaidake: guk beti txakurra aske direla entrenatzen dugu, bakarrik lasterketetan eta Amarok taldeko entrenamenduetan lotzen ditugu. Gero eta gutxiago gara kirol hau etxeko txakurraekin egiten dugunok. Eta ez erosi txakur bat kirol honetarako! Laguntzari dagokionez, Udaletik jasotzen dogu: hasi lasterketan erabili behar dugun materialetik, hesiak, anbulantzia. Garaikurretan eta horrelako gauzetan ere laguntzen digu. Hortik aparte, lasterketa egunerako hainbat laguntzaile ditugu!

**Bikejoring lasterketa, ETL lasterketa eta lasterketa herrikoia. Zeintzuk dira modalitate bakoitzeko ezaugarriak? Zelako distantzia izango du bakoitzak? Herrikoia hasiberrientzat izango da, edo probatzeko asmoa dutenentzat?**

**“Normalean ibilbide lauak eta errazak izaten dira, baina gurean ezin da halakorik egin eta gogorragoa bihurtuko da”**

Bereziketa handiena bikejoring eta txakurkrosaren artean dago. Bikejoring mushing edo elurretako tri-neoko kiroletatik egokitutako modalitatea da, eta kasu honetan txakur batek bizikleta tiratzen du. Normalean ibilbide lauak eta errazak izaten dira; Eibarkoa, baina, ezin horrelakoa izan: 7 kilometro eta 300 metro positibo izango ditu! Eta txakurkrosa eta herrikoia artean dagoen alde handiena distantzian izango da. ETL probako txakurkrosak ia 9 kilometroko luzeera izango du, eta Kalamua gainera igoko da! Nahiko gogorra izanda ere, oso polita ere bada aldi berean. Herrikoia, bestalde, hasiberrientzat izango da bereziki, hasten diren kirolari zein txakurrendako. Azken hori 2 kilometrokoa izango da, Olabeiko kanpan jokatzekoa. Norbaitek probatu nahi badu eta material egokirik ez badu, guk Amarok taldean badugu materiala lagatzeko. Domekan gerturatu eta beldurrik gabe galdetzea besterik ez du. **Zein txakur motak dira aproposenak modalitate bakoitzerako? Zenbat urterekin ematen dute errendimendu onena? Zer ezaugarri izan behar du horrelako txakur batek?**

Edozein txakur arrazak balio du kirol honetarako. Badiara txakur mota batzuk arnas arazoak izateko arriskua dutenak -adi boxer edo karlino motakoak, esaterako-; horiei agian ez nieke gomendatuko korrika egitea, beti txakurraren osasunaren aldetik ikusita. Bestela, edozein txakur da balekoa. Argi dago, gure kasuan bezala, batzuk gaitasun, abiadura eta iraupen gehiago izango dutela beste batzuen aldean. Adinaren inguruan, txapelketetan araututa dago 2 eta 10 urte bitartekoak izan behar direla. Herrikoian, bestalde, ez zaio adinari erreparatzen; hori bai, beti albaitari kontrola pasa eta gero. Egunean bertan izaten da kontrol hori, dortsala hartzerako orduan. Eta lasterketa guztietan, txakurra ondo dagoela eta txertoak badituela baieztatzen. Nik Dexter-ekin jardungo dut bizikleta gainean, eta Zeusekin egingo dut antxintxiketan! Sonia Fernandezek Oreorekin egingo du korrika, Unai Fernandez eta Duncan txakurrak osatuko dute bikotea korrika saioan, eta Nagore Angiozarrek Sulirekin hartuko du parte proba herrikoian.

**Txakurrak sufritzen duela edo bere gustoz ez zuela korrika egingo diotenei, zer erantzungo zenieke? Zer du desiragarri edo gustoko kirol modalitate horrek, animaliarekiko harremana, naturgunean egi-tea... bestelakorik?**

Probatzeko. Euskadiko Ligako azkeneko proban, Galdakaon, arazoa edo eztabaida izan genuen horrelako elkarte batekin. Zezenketarekin konparatu gintuzten! Esango nieke ikustera etortzeko eta ea zelako ondorioak ateratzen dituzten! Baina ezjakintasunetik erraza da berba egitea! Txakurrak ez badu korrika egin nahi, inoiz

## “Txakurren adinari dagokionez, txapelketetan araututa dago 2 eta 10 urte bitartekoak izan behar direla”

ez dugu behartuko. Nire kasuan, adibidez, Oreorekin askotan erretiratu naiz: ez badu gogorik, ez da ezer gertatzen. Araututa dagoen kirola da: bai temperatura aldetik, baita ibilbidearen aldetik ere, oso kontrolatuta dago. Materialak txakurrari ez dio inolako oztoporik sortu behar korrika egiteko, gustura sentitu behar da. Eta kirol honek jabea eta txakurraren harteko harremana sendotzen du: txakurrarendako ehiza joko bat da. Gainera, beste txakurrekin sozializatzeko edo harremanak izateko laguntzen du. Jarrera-arazoak dituzten txakurrei ere ondo datorkie euren jabearekin korrika egitea, gero jarrera horiek bide onera eramateko!

**Zeintzuk dira urte honetarako zure buruari jarri dizkiozun erronkak? Non parte hartzea amesten duzu?**

Unai, Nagorek, Soniak eta laurok lasterketetan parte hartu eta, mendian gozatzeaz aparte, gehienbat txakurrekin disfrutatzea beste helbururik ez dugu. Soniaren eta nire kasuan, bestalde, gure txakurrek 9 urte beteko dituzte aurten; beraz, azkeneko denboraldia izango dute txapelketetan parte hartzeko. Besteoi, animatzea besterik ez zaigu geratzen domekan Arratera igo eta egun zoragarria pasa dezazuen!







**Fernando Errekalde**  
**SARI BEREZIA**



**Mirari Ubera**  
**EUSKARA SARIA**



**Jose Perez "El Tigre de Amaña"**  
**ERREKONozIMENDUA**



**Eibarko Koro Gazteak** ukitu berezia eman zion ekitaldiari "Neguko ahotsak" diskoko abestiekin.



**Aitor Campos**  
ARETO-FUTBOLA



**Ibon Artola**  
AUTOMOBILISMOA



**Ricardo Ereña**  
BILLAR



**Aleu Cid**  
ERRUGBIA



**Maialen Insausti**  
ESKUBALOIA



**Juliana Aparicio "Jujuba"**  
FUTBOLA



**Juan Luis Tueros**  
GOLF



**Roberto Oregi "Ariktxa"**  
HERRI KIROLAK



**Jose Manuel Perez "Maka"**  
HIRU TXIRLO



**Markel Simon**  
JUDO



**Xuban Hoyos**  
KARATEA



**John Nunez**  
KICK BOXING



**Pello Berrizbeitia**  
MENDIA



**Haitzart Iraolagoitia**  
PILOTA



**Iker Hidalgo**  
SASKIBALOIA



**Oscar Ferreiro**  
SQUASH



**Gabriel Saro**  
TENISA



**Iker Badiola**  
TIRO OLINPIKOA



**Aitor Fernandez**  
TRIATLOIA



**Nagore Anglozar**  
TXAKUR KROSA



**Pelo Galkoetxea**  
TXIRRINDULARITZA



**Fito Málaga**  
WATERPOLOA



**Luis Gonzalez**  
WU SHU



**Arima Galduak**  
ERREKONozIMENDUA



**Nora Zabala**  
ATLETISMOA



**Igor Ruiz eta Ekaitz Lago**  
IGERIKETA



**Xabier Teruel**  
JUGGER



**Ipurua Klubeko Zuzendaritza**  
GIMNASIA ERRITMIKOA



**Guridi Rugby Taberna**  
SUSTAPENA



**Saridun eta sari-banatzailleen talde-argazkia, Gabon Zaharreko ekitaldiaren amaieran.**

# 2023 urteari kiroltasunez agur esateko



San Silbestre eguerdiz jokatu zen bigarren bezala, Kirol Sarien ekitaldia amaitu eta jarraian, Errebaletik abiatuta Eibarko kaleetatik adin guztietakoekin parte-hartzearekin.



Kaleetako San Silbestrearekin batera, aurretik izan zen Uretakoa ere, urtero bezala.



Ohikoari jarraituta, Astelena frontoiak irudi bikaina eskaini zuen Aspek antolatutako gabon inguruko hiru jaialdietan: abenduaren 25ean eta urtarrilaren 1ean eta 6an.

## ASTEBURUKO AGENDA

### FUTBOLA

#### Emakumezkoen 1. Maila

EIBAR (atsedena)

#### Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Racing (gaur, 20:30)

#### Emakumezkoen 3. Maila RFEF

EIBAR B - Arratia (etzi, 15:30)

#### Gizonezkoen 3. Maila RFEF

VITORIA - Padura (bihar, 15:30)

#### Emakumezkoen Euskal Liga

Basauriko Kimuak - EIBAR C (etzi, 18:00)

#### Erregionaleko Ohorezko Maila

Deusto - EIBAR URKO (gaur, 21:00)

#### Erregionaleko Gorengo Maila

Bergara B - URKI (etzi, 17:00)

#### Erregionaleko 1. Maila

EIBARTARRAK - Ikasberri B (etzi, 18:00)

#### Jubeniletako Ohorezko Maila

Dux Logroño - EIBAR (etzi, 17:00)

#### Jubeniletako Liga Nazionala

Bergara - EIBAR B (bihar, 12:15)

### FOBALL-ZALETUA

- Garajes Garcia - L. Rueda (bihar, 09:00)
- Gastro Gilda - BOJ (bihar, 10:30)
- Bar Marem - Malape taberna (etzi, 09:00)
- Adahi Eraieder - Xania (etzi, 10:30)

### ESKUBALOA

#### Emakumezkoen Zilarrezko Maila

Lleida Handbol - MEK EIBAR (bihar, 18:00)

#### Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Romo Broker (bihar, 18:30)

#### Emakumezkoen Euskadiko Liga

Zuazo Senior - MEK EIBAR B (etzi, 10:00)

#### Gizonezkoen Lurraldeko Liga

MEK EIBAR B - Ordizia (etzi, 11:45)

#### Jubeniletako Euskadiko Liga

Ereintza - MEK EIBAR (bihar, 13:15)

### FRRUGBIA

#### Emakumezkoen Ohorezko Liga

CRAT Coruña - EIBAR (etzi, 12:00)

#### Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

Durango - EIBAR (bihar, 12:00)

### SASKIBALOA

#### Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Bosteko Irauli - EIBAR (bihar, 16:00)

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

Artesanos JUANTXO - Karlatz (bihar, 14:30)

EIBAR B - Erroibide Irun (bihar, 18:15)

#### Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Diego Valor - EIBAR C (etzi, 18:00)

### WATERPOLOA

#### Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

URBAT - Godella (bihar, 18:15)

#### Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

Larraina - URBAT B

#### Emakumezkoen Euskal Herriko Liga

URBAT (atsedena)



## 2024koari ongi torri beroa egin zitzaion

Urte Berri eguneko Urko igoerak lagun talde polita bildu zuen gure herriko gainean. Ez ziren gutxi izan Depor aurretik bertatik irten zutenak, han goian aurten ospatuko duten mendeurrenaren lehenengo ekitaldi bezala hartuta, argazkia ateratzeko. Eurei beste asko bildu zitzaion, eguraldi ona aprobetxatuta.

Urtarrilaren 7an jokatu zen Kopako Eibar-Athletic derbiak ere ikusle kopuru handia bildu zuen Ipuruan: diotenez, 7.499 izan ziren zuzenean ikusi zutenak. Hori bai, Botxokoak gainetik pasa zituzten armaginak.





**365 EGUN IREKITA** goizeko 05:00 erab. gauko 00:00 erab.

- GUZTIZ EKIPATURIKO 900m<sup>2</sup>-ko gimnasioa
- INGURUNE PAREGABE batean giro turiko zentroa
- MAKINA, MATERIAL ETA EGITURA BERRIEKIN!!!

*Etor zaitez probatzera!*

Matsaria, 32, 1-B  
943 430 987



# ZURICH

## Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

# “Komikiari asko falta zaio merezi duen tokia jasotzeko”

MAITE GURRUTXAGA • Ilustratzailea



“Habiak” komiki-liburuarekin etorri da Eibarrera Maite Gurrutxaga ilustratzailea (Amezketan, 1983), lan horren inguruko tertulia egin baitute Harixa Emoten irakurketa-klubeko urteko azkeneko saioan. Euskadi Saria ekarri zion lan horrek 2014an, ilustrazio-arloan. Gaztetan miresten zituen izen handiko idazleen liburuei jarri dizkie irudiak, eskuarekin konpontzen da hobeto ordenagailuarekin baino, eta ez da testuak ilustratzearekin soilik konformatzen, bestelako euskarriak irudiz janzten ere gozatzen du amezketarrak.



**Habiak komiki-liburuarekin izan zaitugu Eibarren. Zuk ilustratu duzun lan honen jatorria ezagutzeko antzergintzara jo behar dugu, ez da hala?**

Bai, Dejabu Panpin Laborategiak bere garaian antzezlan bat taularatu zuen, *Gizona ez da txoria* izenarekin. Bosniara egindako bidai batetik eta bertako esperientziatik eta Londresen eta herritik urrun izatetik sortutako lana zen. Bertan Ximon eta Selmaren historia kontatzen zuten, bata AHT-aren eraikuntza dela eta etxetik bidalia, eta bestea Bosnian Balkanetako gerrak utzitako egoera eskasak herria uztera behartua. Lanari taula gainean bizitza eman ondoren bizitza hau luzatzeko asmoz jo zuten neregana, antzezlanaren gidoia komikira eramateko proposamenarekin, eta horrela hasi nintzen lanean.

**Liburua eskuartean eduki arte, lan luzea dago atzetik...**

Bai, kasu honetan bi urtekoa, beste lan batzuekin uztartu nuena. Ez Ainara Gurrutxagak eta Urko Redondok, ez nik, ez genuen uste 60 orrialde baino luzeagoa izango zenik, baina istorioan barneratzen hasi nintzen eta... 112 orrialdeko komikia atera zitzaidan.

**Ez da hau bakarria izan, hainbat liburu ilustratu dituzu. Nolakoa izaten da testu bat ilustratzeko prozesua? Zertan inspiratzen zara?**

Ez da beti berdina izaten. Gehienetan, editore bat harremanetan jartzen da ilustratzailearekin bere argitaletxeak argitaratuko duen liburu horri irudiak egiteko, horrela egiten dut gehienetan lan. Baina izaten dira beste bide batzuk ere; adibidez, idazle bat jarri daiteke zurekin harremanetan, bere testu bat erakutsi eta ilustratu nahi duzun galdetzeko, edota alderantziz. Izan daiteke proiektu pertsonalak egitea ere. Bide guztiak interesatzen zaizkit.





### **Kolaborazio ugari egin dituzu izen handiko hainbat idazlerekin: Igerabide, Sarrionaindia, Landa... Nolakoa esperientzia izan da?**

Ba ilusio berezia egiten dit haurtzaroan edo gaztaroan irakurritako idazle horien lanei irudiak jarri ahal izatea; beraz, oso pozgarria. Batzuetan harremana zuzena izaten da eta esku artean dugunaz hitz egiteko aukera izaten dugu, bestetan ez da horrela izaten, baina beti egiten dit ilusioa.

### **Zein tresna erabiltzen dituzu marrazteko? Eskuz bakarrik ala ordenagailua ere erabiltzen duzu?**

Analogikoa naiz. Tenperak erabiltzen ditut azken aldian, aurretik urmargoak. Bi arrazoi aurkitzen ditut teknika analogikoekin lan egiteko: batetik, ordenagailuarekin baino erosoago sentitzen naiz paper eta margoekin, hobeto moldatzen gara, eta nik badakit margoak nire erara erabiltzen, ez ordea ordenagailuarekin, batzuetan iruditzen baitzait berak gehiago agintzen duela nik baino. Bestetik, paper, margo, arkatz eta pintzel artean zoriontsuagoa naiz, eta ordu asko pasatzen ditut mahai aurrean, eta ahalik eta gustoren egon nahi dut.

### **Zein ilustrazio-lan egin nahiko zenuke?**

Asko! Ipuin klasikoak, adibidez, asko interesatzen zaizkit, baina gaur egungo autore askorekin ere nahiko nuke lan egin, eta baita nire proiektuak aurrera atera ere... eta tartean kartelak, ardo botilentzat etiketak, koadernoetarako diseinuak, liburu puntuak, zeramika piezetarako ilustrazioak... egin nahiko nituzke.

### **Komiki batekin irabazi zenuen Euskadi Saria ilustrazioaren arloan. Gainditu du komiki-irakurleak friki ospea?**

Uste dut ospe hori kanpotik eta ezjakintasunetik sortua izan dela,



## **"Ordenagailuarekin baino erosoago sentitzen naiz paper eta margoekin, hobeto moldatzen gara"**

eta azken aldian produkzioa handitu izanak eta horrek pixka bat komikia erdigunerara ekarri izanak izan duela eragina aurreiritzi horrekin puskatzen. Hala ere, asko falta zaio komikiari merezi duen toki jasotzeko. Pixkanaka eta irakurlea komikira gerturatzen den heinean izango du toki hori. Denentzako gaiak, estiloak, kontatzeko moduak, istorioak... daude komikian, literatura forma bat da.

### **Nola sartu zinen ilustrazioaren munduan?**

Txikitandik marraztu izan dut. Txikitik marraztea ez da arraroa, baina agian bai nerabezaroan marrazteari ez uztea. Nik jarraitu egin nuen marrazten, 14 urterekin argi nuen Arte Ederrak ikasi nahi nituela, eta hala egin nuen. Pinturako modalitatean. Arte Ederretan konturatu nintzen ez nintzela margolaria izango, baina baita ilustratzailea izan nahi nuela ere; beraz, oso baliagarria izan zitzaidan. Horrela erabaki nuen ondoren ilustrazioa ikastea Bartzelonako Escola de la Donan,

eta halaxe hasi nintzen, pixkanaka, lantxoak egiten.

### **Testuak ez ezik, hotel bateko paretak ere "ilustratu" omen dituzu. Kontaiguzu.**

Asko interesatzen zait ilustrazioa beste produktuetan aplikatzea ere. Liburuekin eta literaturan egiten dut gehien lan, forman eta edukian interesatzen zaizkit liburuak, baina bestelako lanak egitea ere gustoko dut, planteamendua desberdina delako euskarri bakoitzean, lan egiteko modua, batzuetan tekniken erabilpena ere bai, kontatzeko era ere alda daiteke.

### **Zer darabilzu orain esku artean?**

Orain Kataluniako argitaletxe baten bidez "gaizkileei", kaxotx artean, buruzko liburu bat ilustratzen ari naiz, dibertigarria ari da izaten. Aurrera atera nahi ditudan proiektu pertsonalago pare bat ere baditut, bat nire anaia Mikelekin; aurtengo sari bat eman digute elkarrekin egindako *Lo mucho que tengo* albumarengatik, eta orain beste ipuin bat dugu esku artean, pixkanaka egiteko.

## Barixakuak Jolasian gaur itzuliko da auzoetara

Urtarrilean eta otsailean berriro hartuko dituzte Eibarko auzoek Barixakuak Jolasian ekimeneko jolasak. Urtarrilean hiru saio izango dira: 12an Txaltxa Zelai inguruan, 19an Torrekuako parkean eta 26an Urkizuko parkean.

Otsailean, berriz, hau izango da egutegia: otsailak 2 Txaltxa Zelain, otsailak 16 Torrekuan eta otsailak 23 Urkizun.

Arratsaldeko 17:00etatik 18:00etara 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat jolasak egiten dira ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen ekimen honen barruan. Haurren adina kontuan hartuta hainbat jolas eskaintzen dira begiraleen laguntzarekin eta parte-hartzea doan izaten da, bertan azaldu besterik ez da egin behar.

Umek zein gurasoek ondo pasatzeaz gain, "euren arteko berbetia euskaraz izatea da nahi duguna eta gu-



raso ezberdinen arteko harreman berriak egitea, euskaraz", diote elkartetik. Gurasoak Berbetan egitasmoa familien artean ezagutzera emateko aprobetxatzen ditu jolas-uneak ...eta kitto!-k. Egitasmo horren helburua "familia-giroa euskalduntzea eta gurasoen arteko euskal harreman-sarea zabaltzea da. Ekintza ugari antolatzen ditugu urtean zehar eta izena, bakarka ez ezik, taldeka edo kuadrillaka ere eman daiteke". Informazio gehiagorako 943200918/elkartea@etakitto.com.

LH  
5-6

## Aratosteak 2024 PLAY-BACK lehiaketa

Otsailak 11, igandea

arratsaldeko 17:00etatik aurrera Untzaga plazan

### BETEBEHARRAK:

- Mozorrotuta joatea.
- LHko 5. edo 6. mailako ikaslea izatea.
- Taldeak, asko jota, SEI lagunez osatutakoak izango dira.
- Partaide edo talde bakoitzak behin hartuko du parte.
- Play-backeko **ABESTIAK EUSKARAZ** izan behar dira.

### IZEN EMATEA:

- Abestia MP3 formatuan grabatu.
- Izen-emate fitxa bete: taldearen izena + ikastetxea + aukeratutako abestiaren izenburua + partaideen izen-abizenak + telefonoa)
- [banaketa.etakitto@etakitto.eus](mailto:banaketa.etakitto@etakitto.eus) helbidera bidali dokumentu biak (abestia + izen-emate fitxa)

Otsailaren 2a baino lehen.

### SARIAK:

Interprete onenari - Koreografia onenari - Mozorro onenari

eta kitto!  
EUSKARA EKITTOA





## Untzagako etxe-dorreko arkabuzaria Armagintzaren Museoan jarri dute ikusgai

Ulsaga edo Orbeatarren jauregi errenazentistaren fatxada nagusiaren balkoia apaintzen zuen arkabuzaria Eibarko Museoan ikusteko moduan jarri dute. Ego Ibarra Batzordeak 2022an zaharberritu zuen pieza eta, batzordearen berbetan, “berroneratu ondoren Eibarko Museoan erakutsita, piezari duen balioa ematen zaio”. Ignacio Zuloagaren koadrorik famatuenetako batean edo Indalezio Ojangurenen hainbat argazkitan ikus daiteke jauregiaren fatxada hori, eta baita arkabuzaria bera ere. Orbeatarren jauregia edo Dorre Zaharra XV. mendearen amaiera aldean eraiki zen eta 1902. urtean bota. Arkabuzariaren zati hori Estaziño kalean 1905ean eraikitako zalditegi zaharraren harrizko sarrerako atea egiteko erabili zen. Atea 2014. urtean eraitsi zen eta elementu hura, dohaintza bidez, Udalaren eskuetan laga zuten, ate-zangoak eta ateburua osatzen zituzten beste harri batzuekin batera.

## San Blas opilen ikastaroa antolatu du Arrate Kultur Elkarteak

San Blas opilak nola egiten diren ikasi nahi dutenentzat ikastaroa antolatu du Arrate Kultur Elkarteak aurten ere. Edurne Zenarruzabeitiak azalduko ditu sanblasak ondo egiteko jakin beharrekoak, urtarrilaren 27an, 11:00etan Kultun bertan hasiko den saioan. Parte hartzeko 5 euro ordaindu beharko dira, baina bazkideentzat doan izango da. Izena emateko, bestalde, [arratekultu@gmail.com](mailto:arratekultu@gmail.com) helbidera idatzi edo 638 284 912 telefonora deitu behar da.



## Musika Hizkuntza ikasi nahi duten helduentzat talde berria osatu dute

Musika Hizkuntza ikasi nahi duten helduentzat talde berri bat abiatuko da Eibarko Musika Eskolan, datorren astean bertan. Klaseak astelehenetan izango dira eta ordubeteko iraupena izango dute, 15:30etik 16:30era. Eibarko Musika Eskolatik azaldu digutenez, “Elena Martin izango da irakaslea eta klaseak dinamikoak izango dira. Zeretik hasita, partitura bat irakurtzen, musika nola idazten den, eta musikarekin lotutako beste hainbat gauza ikasiko ditugu”. Informazio gehiago nahi izanez gero, edo izena emateko, [943702725](tel:943702725) telefonora deitu edo [musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus](mailto:musikaeskola@musikaeskola.eibar.eus) helbidera idatzi daiteke.



## Bi argazki-erakusketa antolatu dituzte urtarrilerako

Deporreko Argazkilaritza Batzordearen eskutik, bi erakusketa hauek ikus daitezke urtarrilean: Portalea jatetxean, Jose Luis Irigoienek “Kapadocia” izenekoa ikus daiteke. Erakusketa osatzen duten irudiak lantzeko argazki kimikoa, selenioarekin biratua erabili du Irigoienek. Eta Eibarko Klub Deportiboaren tabernan, berriz, “La Luz Oculta” ikusi daiteke, Jorge Amedo, Vicente Selles eta Txemi Ircioren argazkiek osatutakoa.



## Jon Maiak “Kantu berri bat gara” aurkeztuko du gaur

2021ean ‘Kantu bat gara’ lana kaleratu ondoren, ‘Kantu berri bat gara’ disko-liburua argitaratu du Jon Maia bertsolari, abeslari eta idazleak. Hamalau abesti eta 60 orriko poemak bildu ditu lan horretan, eta izen handiko kolaborazioak izan ditu. Gaur 19:00etatik aurrera lana zuzenean ezagutzeko aukera izango dugu Coliseo antzokian. Jon Maiarekin batera hainbat lagun arituko dira emanaldian: Gorka Hermosa (akordeoia), Pello Ramirez (txeloa), Nacho Soto (teklatuak) eta Nerea Quincoces (perkusioa eta ahotsa), besteak beste.



## Pikara Magazine-k egunean aurkeztuko du bere urtekaria

Andretxean aurkeztuko du *Pikara Magazine* aldizkari feministak bere urtekariaren 11. edizioa, datorren egunean, 19:00etan. Gainera, *Antiracismo*, *Drogas y Odios* azken monografikoez ere egingo dute berba. 2010ean jaio zen *Pikara Magazine*, gizarte, politika eta kultura gaiak ikuspegi feminista eta inklusibotik lantzen dituen aldizkari digitala.



## Gloria Fuertes poetari buruzko bideo-forum saioa

Pagatxa emakume taldearen Emakumeak Historia Egiten zikloaren baitan, astelehenean Gloria Fuertes idazle eta poetari buruzko bideo-forum saioa egingo da Andretxean. Orain arte bezala, Patricia Perex Cotok dinamizatuko du saioa, baina hasiera-ordua pixka bat aurreratu eta 18:00etan ekingo zaio emanaldiari. Gloria Fuertes Garcia (1917-1998) batez ere 1970eko hamarkadan egin zen ezagun, telebistako haur-saioetan parte hartu zuelako. Haur-literaturarekin batera, batez ere emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, bakezaletasuna eta ingurumena jorratu zituen bere lanetan. Sarrera libre da, interesa duen edozeinentzat.

## 2024rako Coliseoaren Laguna txartela Pegoran eska daiteke

Udalak Coliseoaren Laguna txartela eskainiko du aurten ere. Txartelari esker %30eko beherapenarekin eskuratu daitezke Udalak antolatutako ikuskizunetarako sarrerak, eta, zinemarako hobariak ere baditu. Interesdunek Pegoran eska dezakete.

## Ipuruako abesbatzaren kontzertua

Bihar 12:00etan emango du bere lehen kontzertua Koralito abesbatzak, Ipuruako Merkatu Plazan. Auzoan ekimen parte-hartzaileak abiatzeko asmoz sortutako auzo-abetesbatza



da eta Jose Miguel Laskurainek zuzentzen du. Azaldu digunez, “ekimena auzokoei zabaltzea zen asmoa, adin-mugarik gabe”. Bihar hamar bat abesti eskainiko dituzte eta gonbidapen zabala egin dute, “helburua kantua bitartez ondo pasatzea da-eta”.

**ZERTXOBAIT ERRAZAGOA**

			8	4			
	7	2					5
4		5			1	8	
1							2 9
	8	4	3		5	1	6
5	6						4
		3	1			7	5
	4					2	1
			4	3			

8	4	3	1	6	5	2	9
7	2						5
4		5			1	8	
1							2 9
8	4	3			5	1	6
5	6						4
		3	1			7	5
	4					2	1
			4	3			

soluzioa

**ZERTXOBAIT ZAILAGOA**

	5	3		7			
	7			5		1	
2			4				5
		7	1	6	5		
8							3
			8	2	3	7	
9				2			7
		1	8				9
			9			4	5

**S  
U  
D  
O  
K  
U**

soluzioa

5	3		7				
7			5			1	
2			4				5
		7	1	6	5		
8							3
			8	2	3	7	
9				2			7
		1	8				9
			9			4	5



**AURKITU 10 EZBERDINTASUNAK**

# Urtarrilak 12-18

## BARIXAKUA 12

### MUSIKA

19:00

"Kantu berri bat gara",  
Jon Maiarekin. Coliseo.



## ZAPATUA 13

### URTEKO BATZARRA

11:00

Eibarko Txirrindulari  
Elkarteen urteko  
batzarra. Portalea  
(areto nagusia).



### MUSIKA

19:00

Koralito Abesbatza.  
Ipuruako Merkatu Plaza.

## DOMEKA 14

### EIBARKO TXAKURKROSA

08:00-09:30

Albaitari kontrola.

09:30

Lasterketa bilera.

09:45

Bikejoring lasterketa.

10:30

ETL lasterketa.

11:30-11:45

Albaitari kontrola.

12:00

Herri-lasterketa.

12:30

Sari-banaketa.

Arrate.

## ASTELEHENA 15

### FILOSOFIA

10:00 "Elkarrizketa  
filosofikoak" (Ikasten  
elkarteen eskutik,  
3. saioa). Sarrera librea.  
Portalea.

### ELKARRETARATZEA

12:00

Pentsiodunen borrokaren  
6. urtemuga. Untzaga.



## BIDEO-FORUMA

18:00-19:30

Emakumeak Historia  
Egiten: Gloria Fuertes.  
Dinamizatzailea: Patricia  
Perex Coto. Sarrera librea.  
Andretxea.



## MARTITZENA 16

### LITERATURA

19:00

Idazlearekin Harixa  
Emoten: Eider Rodriguezen  
"Eraikuntzarako materiala".  
Portalea (1. batzartokia).



## EGUAZTENA 17

### IBILALDIA

09:09

Donosti-Igeldo-Orio  
ibilaldia, Ikasten  
elkartearekin. Bazkaria  
eraman. Trenaren irteera  
ordua Ardantzan  
(09:11an Estazioan).

## EGUENA 18

### HITZALDIA

10:00/12:00

"Gipuzkoako parkeak  
eta lorategiak". Hizlaria:  
Iñaki Larrañaga (jubilatua,  
Baratz zaintza eta  
Lorezaintzako  
Nekazaritzako Ingeniari  
Teknikoa). Sarrera librea.  
Armeria Eskola.

## ERAKUSKETAK

### Domekara arte:

- "EIBAR GAUEZ" Eibarko  
Klub Deportiboko Argazki  
Taldearen erakusketa  
kolektiboa.  
(Portalea).  
- "baT + BaT + baT" pintura  
eta argazkiak.  
(Portalea).

### Urtarrilaren 31ra arte:

- "KAPADOCIA" Jose Luis  
Irgoienaren argazkiak.  
(Portalea jatetxea).  
- "LA LUZ OCULTA", Jorge  
Amedo, Vicente Selles eta  
Txemi Ircioren argazkiak.  
(Eibarko Klub  
Deportiboaren taberna).

### Otsailaren 18ra arte:

- "TXIRRINDULARIA",  
JOSE ZUGASTIrena.  
(Armagintzaren Museoa).

### Otsailaren 29ra arte:

- "EME, Estilo Ariketak:  
Emakumeen aurkako  
indarkeria sinbolikoak",  
JOSUNE ARANGUREN  
ZATIKArena. (Andretxea).

# ZINEA COLISEO

## 1 ARETOA

- **13an:** 19:45, 22:30
- **14an:** 20:00
- **15ean:** 19:30

**“La sombra de Caravaggio”**  
 DRAMA



2022/Italia/118'  
 Zuzendaria: Michele Placido  
 Aktoreak: Riccardo Scamarcio,  
 Louis Garrel, Isabelle Huppert  
 Historikoa/Pintura/Erljioa

## 2 ARETOA

- **13an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **14an:** 17:00, 20:00
- **15ean:** 19:30

**“Los colores del incendio”**  
 DRAMA




2022/Frantzia/134'  
 Zuzendaria: Clovis Cornillac  
 Aktoreak: Léa Drucker, Benoit  
 Poelvoorde, Alice Isaaz  
 Mendekua/20. hamarkada

## ANTZOKIA

- **13an:** 17:00 (1), 19:45, 22:30
- **14an:** 17:00 (1 aretoa), 20:00
- **15ean:** 19:30

**“Yo Capitán”**  
 DRAMA



2023/Italia/122'  
 Zuzendaria: Matteo Garrone  
 Aktoreak: Seydou Sarr,  
 Moustapha Fall, Bamar Kane  
 Inmigrazioa/Afrika

## ANTZOKIA

- **13an:** 17:00
- **14an:** 17:00

**“Migrazioa, bidaia...”**  
 ANIMAZIOA



2023/AEB/82'  
 Zuzendaria: Benjamin Renner  
**Abenturak/Komedia/  
 Hegaztiak/Zinefamiliarra**



## Camilo Alvarez Otero

**5. URTEURRENA**  
2019/01/12

**“Zu joan zara, baina  
ZUREGANAKO GURE  
MAITASUNA ez.  
Ez ditugu inoiz  
ahaztuko zuk izandako  
ilusioa eta bizipoza”**

- ZURE EMATZEA,  
SEME-ALABAK ETA BILOBAK -





## Francisco Beristain Albizu “Patxi”

**6. URTEURRENA**  
2018/01/12

**“Denbora igaro arren,  
zure oroitzapenak  
gurekin dirau”**

**ASKO MAITE ZAITUGU**  
- ETXEKOAK -

BERE ALDEKO MEZA  
egingo da hilaren 14an  
(domeka), 12:00etan,  
Karmengo Amaren elizan.





943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon behar da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **UNAX**, hillaren 7xan 9 urte eder bete zenuzaten-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Anaitzen partez!



Zorionak, **XIKER!**, bixar 9 urte beteko dozuz-eta. Primeran pasa zure eguna. Musu eta besarkada erraldoi bat etxekuen partez. Maite zaittugu!



Zorionak, **EIDER**. Hillaren 8xan 10 urte egin zenuzazelako, artista. Musu haundi bat famelixa eta lagun guztien partez.



Zorionak, **ENEKO!!** 7 urtetxo ia, zu bai morroskua!! Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, **IERA!!** Domekan 4 urtetxo beteko dozuz-eta. Musu eta besarkada haundi bat, txapeldun, famelixa guztiaren partez. Askok maite zaitugu.



Zorionak, **HODEI**, hillaren 9xan 11 urte egin zenuzaten-eta, mutil haundi! Famelixaren eta, batez be, Amets eta Bihotzeren partez.



Zorionak, **LIER!** Hillaren 2xan 4 urtetxo bete zenuzaten-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Askok maite zaittugu.



Zorionak, **AINHOA**, hillaren 16xan urtiak beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **AINHOA**, eguaztenian 10 urte bete dozuz-eta! Jarraitu alai eta zintzua izaten. Musu bat famelixa guztiaren eta amatxoren partez.



Zorionak, **MAIALEN** hillaren 3an 12 urte bete zenuzaten-eta! Musu pilla bat danon eta, batez be, Jonen partez.



Zorionak, **ANER!** Domekan ospatu ederto zure urtebetetzia famelixan eta lagunekin. Musu haundi bat danon partez!



Zorionak, **PAULA**, hillaren 1ian 6 urte egin zenuzaten-eta. Musu haundi bat etxeko guztien partez, pitxin.



Zorionak, **SOPHIA** Salas, 6 urte bete dozuz-eta. Musu haundi-haundi bat famelixaren partez. Askok maite zaittugu.



Zorionak, **SABRINA**, bixar 18 urte beteko dozuz-eta. Inguruko guztion eta, batez be, amatxoren partez.

**ek!**

Zure publikitatea herriko aldizkarian

**688 621 535**

publizitatea@etakitto.eus

**GASOLEOEN BANAKETA**

**Kantoi**

20.000 L. / 2.000 L.

**Otaola etorbidea, 13-Bis**  
Tinoa. 943 20 73 74 / 94 671 02 77

**GAUEZ ZERBITZU AUTOMATIKOA**

# Iragarki laburrak



943 20 67 76  
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak [etakitto.eus](http://etakitto.eus) webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZA

### 1.2. Errentan

- Emakume batek etxebizitza hartuko luke alokairuan. 603258452.

### 1.3. Konpartitzeko

- Laguna behar dut pisua konpartitzeko Elgoibarko baserri batean. 669512815.

## 3. LOKALAK

### 3.2. Errentan

- Txomon garaje itxia alokagai. 615775536.

## 4. LANA

### 4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko. 601511174.
- Gizona eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 679412841.

- Emakumea eskaintzen da garbiketarak egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631502177.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Baita gauzez ere. Orduka. 602490595.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia eta erreferentziak. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. 631612652.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez ere. Externa. 605402030.

### 4.2. Langile bila

- Zerbitzari euskalduna behar da tabernan lan egiteko. 634277015.
- Astebururako mahai-zerbitzaria behar dute jatetxe batean. Esperientziarekin. 604203896.
- Administratibo/auxiliar edo aho eta hortzetako higienista behar da. Bidali curriculum-a: hortzklina.06@gmail.com.

## 5. IRAKASKUNTZA

### 5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Goi mailako jazz kontrabaxuko ikasleak musika teoria, baxu elektriko eta kontrabaxuko klaseak ematen ditu. 673366678. Alex.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.



# Cambridge Assessment English

Authorised Exam Centre

AUTHORISED CENTRE ES 438

## EIBAR / DURANGO **MARTXOKO DEIALDIA** Matrikula EPEA Urtarrilaren 1etik 26ra arte

AZTERKETA	DATA	PREZIOA
PET	Martxoak 09 (larunbata) azterketa osoa	106 euro
FCE FS	Martxoak 09 (larunbata) azterketa osoa	195 euro
FCE	Martxoak 02 (larunbata) azterketa osoa	195 euro
CAE	Martxoak 09 (larunbata) azterketa osoa	205 euro

### INFORMAZIO ETA MATRIKULAK

<b>ARRASATE:</b>	Parlance Idiomaster	943 77 06 83 943 79 07 84	<b>DEBA:</b>	English Square North Street English	648 26 82 06 652 44 86 46
<b>BERGARA:</b>	Espolon School of English	943 76 03 53	<b>DURANGO:</b>	San Jose Maristak Ibaizabal Ikastola	94 681 00 58 94 621 58 77
<b>EIBAR:</b>	Link Idiomas Target Schools of English	943 20 39 59 607 83 36 13	<b>MARKINA:</b>	Lea Artibai Ikastetxea	94 616 90 02
<b>ERMUA:</b>	Akerlei	943 17 66 32	<b>ELORRIO:</b>	Ontrack Hizkuntza	94 658 46 73
<b>ELGIBAR:</b>	Key Academia de Inglés ILS	943 74 30 44 943 74 40 40	<b>BERBIZ:</b>	Speak up	94 622 52 94
<b>OSATE:</b>	Sounds Great	943 78 20 91	<b>ZUMAIA:</b>	Golden Gate	943 86 50 20
			<b>MUTRIKU:</b>	Gogoz	943 60 43 58

## Ogibide berdinbide

hamaika

Zein da emakumezkoen rola ogibide maskulinizatuetan?



Saio berria  
asteartero 22:00etan Hamaika Telebistan



UNBE



ORBEA



IGERILEKUA



PADELPISTAK



TENISPISTAK



SPA



ZORIONAK!  
eta  
2024.  
URTE  
kirolari  
OMI!

ORBEA



EIBARKO UDALA